

## **BEREZITASUNAREN LEHIA**

Iñigo Galarza, 17 urte

*Pasai Antxo*

Gay nauzu, bai. Ezin daiteke esan harro nagoela, nire ustez pertsona bat ezin baitaiteke harro egon bizitzak zoriz eskeini dionaz. Konforme nago, hori bai; baina ez konforme horrela maitatzea tokatu zaidalako, baizik eta nire buruan bueltaka egon den egoerari azkenik irtenbidea eman diodalako. Izan ere, nire lagun guztiek badakite eta errespetatzen naute, eta, bestalde, mutil bat ezagutu dut, eta harekin nago; eta ez dut uste egoera honek transmititzen dizkidan zirrara eta emozioak beste gizakiek bizi dituztenetatik bereiztu daitezkeenik. Hainbeste amestutako laugarren etapan nago jadanik (geroago argituko dudan bezala), konturatu gabe, amodioarekin batera dastatzen ari naizen eta hitzetan adierazi ezin daitezkeen sentrazioek beldurtzen, baina, era berean, hunkitzen eta liluratzten nautela.

Duela ez denbora asko, 12 urte edo nituela (ezin baitut zehazki gogoratu), nire barnean hasi ziren egituratzen ondorengo urteetan ohiko bihurtuko ziren eztabaidak, etikoak hasiera batean, baina denboraren joanarekin buruhauste hutsa bihurtuko zirenak. Izan ere, garai hartan mutilen irudia etortzen zitzaidan burura masturbatzen nintzenez, edota futbol taldekoekin dutxatzen nintzenez; eta hori ez zen izango, ez, nire pentsaerara

erraz moldatuko zen egoera bat. Noski, era jakin batean jokatzeko ondo hezitako mutiko baten buru barnean horrek ez zuen harrera oso ona izan, buru heldugabe eta manipulatu hartan sartutako kontzeptu arrotz bat baitzen. Ezin nuen sinestu egoera hori niri egokitu izana, txikitan neskekin aurrera eta atzera ibilitako mutil errugabeari. Benetan errudun sentitu nintzela gogoratzen dut, baina ni errudun sentitzearen arrazoia ez zen izan gurasoengandik eta ingurutik jasotako heziketa baizik.

Esan bezala, nire barnean sortutako gatazkak sekulako kezka eta ezinegona sortzen zidan eta homosexuala izan nintekeela pentsatzeak beldurtu egiten ninduen. Horrez gain, lagunek edota gurasoek, nire egoeraz jabetu gero izan zezaketen erreakzioak erabat kezkatzen ninduen. Baina bitartean, eta nahiz eta hori guztia izan buruan, mutiletan pentsatzen jarraitzen nuen, eta, ondo aztertuta, sekulako paradoxa zen hori. Horretaz konturatzen nintzen ni ere, eta pixkanaka, baina kostata, egokitua zitzaidan (edo, hobeto esanda, zaidan) norabide sexuala onartu eta nire homosexualtasunaren lehenengo etapa (nik izendatzen ditudan bezala) eratuko zuen errealizazioa edo onarpena burutu nuen, ez sekulako buruhausteak sortaraziko zizkidaten gatazka moralak ekidin gabe. Hala ere, hau ez da guztiz egia; izan ere, gaur egun 17 urte ditut eta oraindik arraroa egiten zait nire lagunetik ezberdintasun hori izatea eta nolabaiteko berezitasun baten jabe izatea, baina mantso-mantso egokitzen ari naiz egoera honetara.

Gogoratzen dut behin, duela bizpahiru urte, Sergio nire lagun minarekin ari nintzela telebista ikusten haren etxean, bat-batean, zerabilkigun gaia-ekin inolako erlazorik ez zuen galdera bat gin zidala: “Yael, gay zara?”. Galdera hark zur eta lur utzi ninduen, ezin bainuen ulertu nola izan zezakeen lagun horrek erabat isilean neukana antzeman ahal izateko gaitasuna, edo hori izan ezean, nola demontre bururatu zekioken hain galdera xelebrea botatzea. Noski, hasierako pentsamendu hori azka asko baztertu nuen burutik, ez baitzen posible Sergiok nire sekretuaren berri izatea, eta haren buruak sarri izaten zituen (eta dituen) neuraren bat izango zela pentsatuta, ezetz erantzun nion. “Ez da ezer gertatuko onartzen baduzu, Yael”, jarraitu zuen. Oso urduri jarria nintzen jada, eta ez nekien nola erreakzionatu niretzat erabat berria zen egoera haren aurrean. “Nolatan susmatu du homosexuala naizela?”, pentsatu nuen nire baitan. Isilik geratu nintzen, arduragabetasuna erakusten zuen aurpegia jarriaz; galdera hark niregan erreakziorik ez zuela eragin adierazi nahi nion. Halatan, hortxe geratu zen arratsalde osoan homosexualitateari buruz izan genuen elkarrizketa osoa.

Dena den, egoera xelebre hori ez zen hutsean geratu. Izan ere, arratsalde osoan zehar eta hurrengo egunetan gaiaren inguruko hausnarketa sakona egin ondoren, norbaiti kontatzeko nahia sartzen hasi zitzaidan. Honek erabat talka egin zuen ordu-ra arte jarraitu nuen pentsamoldearekin, inori kontatzea bururatuko ez zitzaidala esaten zuena,

alegia. Aburuz aldatzera eragin zidan zeozer ageri zen nire barnean, erabat kilikatzen eta indartzen ninduen: gaiari buruz norbaitekin hitz egiteko irrikitan nengoen, gay izateak pertsona baten jokabidean eraginik ez zuela zergatik izan transmitizeko beharra sentitzen nuen eta ni bezalako jendearekiko zegoen pentsaera eta jarrerari buelta eman nahi nion, etorkizunean normalizazioari bidea ematea helburu izango zuen gudaria bilakatzea amesten nuen bitartean. Hitz gutxitan, munduarekin borrokatu nahi nuen.

Edozein modutan, ezin nuen jakin laguna zein mugataraino ari zen brometan galdera hura egin zidanean, baina aurretik gaiari buruz hitz egiterakoan eta momentu hartan erakutsitako seriotasunak eta eman zidan segurtasunak nire “sekretutxoarekin” jarraitzea zentzugabekeria zela sentiarazi zidan. Horrela, nire homosexualitatearen bigarren etapa beteko zuen kanporatze aldiari hasiera ematea erabaki nuen. Esan beharra dago garai hau zailena izan zela niretzat, nahiz eta injustiziaren aurka jardun nahi izanak indar handia ematen zidan. Ez nuen ezer garbi ikusten; nire lagunek mila eratarik erreakzionatu zezaketen, batez ere momentu hartan geneukan adinarekin (14 bat urte), eta, ondorioz, denbora bat itxarotea erabaki nuen, nire lagunaren heldutasunerainoko bidearen baitan egongo zena betiere, edota nik hala kontsideratuko nuen.

Bi urte igaro ziren horrela, nire homosexualtasuna adierazteko nahia modu neurrigabeen han-

ditzen eta handitzen zihoan heinean. Denbora horretan, mila alditan desiratu nuen norbaiti kontatzea, baina aldeztatik aurretik planeatutako estrategia aurrera eramateko zorian nengoenean, beti kokildu eta atzera bota behar izaten nuen neure burua. Eta kontua da ez nekiela zergatik gertatzen zitzaidan beti bera lagunen aurrean. Agian erabat ziur ez nengoelako izango zen. Edota beldurra izango zen, edota lotsa; egia esan, ez dakit.

Egoera hartan, ordea, aukera ezin hobea aurkeztu zitzaidan, inoiz ere planteatu ez nuena. Hain zuzen ere, udako oporretan Nafarroako herrixka batera joan nintzenean gertatu zen. Hilabete osoa han igarotzeko asmoa genuen familiak eta nik, eta, beraz, kuadrilaren batean integratzea nuela aukerarik egokiena erabaki nuen. Hala, egun batean igerilekuan nengoela amarekin, ni baino zertxobait gazteagoa izango zen mitul bat gertau et ahizketan hasi zitaidan. “Zu ez zara hemengoa, ezta?”, hasi zen. Ezetz erantzun nion, kanpotarra nintzela eta han hilabete baterako nengoela zehaztu niolarik. “Hector dut izena”, jarraitu zuen. Hortik aurrera arratsalde osoa eman genuen hizketan: ea zer ikasten nuen, ea haren kuadrilarekin atera nahi nuen... era horretako gauzak galdetu zizkidan. Oso mutil atsegina iruditu zitzaidan hasiera batetik, oso irekia, baina ez hori bakarrik, oso erakargarria ere egin baitzitzaidan. Dena den, hasiera batean nahiko gaizki pasa nuen, mutil oso lotsatia baininten, baina ahalik eta era atseginenean mintzatzen saiatuz, azkenik hasierako urduritasun hori alde bate-

ra uztea lortu nuen. Geroago, bere lagunuen taldea aurkeztu zidan eta haietako batzuekin ere egon nintzen solasean ondorengo egunetan. Halere, hasieran etorri zitzaidan mutilarekin lortu nuen laguntasunik handiena egunak aurrera zihoazen heinean: hain zen atsegina mutil hura, hain zen erraza harekin edozer gaiz hitz egitea... Halatan, lagun minak bihurtu ginen egun batzuen buruan, baina nire aldetik zerbait gehiago ere bazegoela sumatzen hasi nintzen. Maitemindu nintzela ulertu nuen, ezin bainuen buruan eduki hura ez zen bestelako irudirik. Esan daiteke lehenengo aldia zela maitemintzen nintzena, lehendik sumatu ez nituen sentrazioak azaleratu baitziren nire gorputzera. Baina beno, esan nahi nizuena argituko dizuet.

Esan bezala, aukera ezin hobea aurkeztu zitzaidan, eta horixe aprobetxatzea erabaki nuen. Hectorri kontatu niezaiokeen, agertu zidan laguntasuna kontuan hartuta, baina honek eduki zezakeen erreakzioaren beldur izan gabe. Izan ere, nire herriko lagunak edota ikastolakoak ez ziren behin ere enteratuko hari kontatzerakoan izan zezakeen erreakzioa, zena zela. Horrez gain, nik ez nuen herri hartara bueltatzeko inongo asmorik. Hortaz, azkeneko egunean kontatuko nion; bai, ziur nengoen. Hala, egun hura iritsi zen: “Begira, Hector, zeozer aitortu behar dizut”, hasi nintzen. “Zutaz maitemindurik nago”. Sekulako harrikada izan zen hori nire lagunarentzat, jarri zuen beldur aurpegiari oso ondo nabaritzen zen moduan. Antza

denez, herri isolatu batean jaiotako mutil hark ez zuen horrelakorik inoiz ezagutu, eta beldurtu egin zen. Ez dakit zertaz, baino beldurtu egin zen. Ondoren, eta ni homosexuala izateak nire jokabidean eraginik ez zuela eta hori berak konprobatu zuela, nire lagun mina bihurtu baitzen, azaltzea nindoanean, korrika alde egin zuen. Momentu horretan, munduko pertsonarik baztertu eta arbuiauena sentitu nintzen, hain zuzen ere, nire konfidantza osoa eskaintzea erabaki nuen lehen aldian horrelako erantzun bortitza jasotzea ez bainuen espero.

Gertakari gaitzesgarri honek nire kanporate etapan atzera bota ninduela uste duzenok oso oker zabiltzate. Alderantziz, gertakari hark inar gehiago eman zidan injustiziaren aurkako nire borrokarako. Oso garbi ikusten nuen niri mutilak maitatzea tokatu izanak ez zuela inolako eraginik nire jokatzeke moduan, eta inolaz ere ez nintzela joango kaletik edozein pertsonari min emateko intentzioarekin, jendeak uste zuen (eta duen) moduan.

Indarberriturik bueltatu nintzen nire herrira, gertatu zitzaidan guztia Sergiori, nire benetako lagunari, kontatzeko asmoak erabat urduritzen ninduelarik. Eta hala egin nuen, lehenengo egunean bertan, gainera. Dena den, uste baino gehiago kostatu zitzaidan, askoz ere ondorio gehiago baitzeuden jokoan egun hartan. Eta, egia esan, nik ez nion zuzenean kontatu, zerbaitek atzera botatzen baininduen oraindik, baizik eta nik emandako zantzuen bidez asmatu behar izan zuen, harengan

Hectorri zuzenean kontatu izanak ekarri zuen bezalako erreakzio negatiboa edidin nahi nuelako. Hala, oportretan pertsona batez maitemindu nintzela kontatzen hasi nintzaion, baina maitasun hori hasiera batetik erabat ezinezkoa zela zehaztu nion. “Mutil batekin al zegoen?”, galdetu zuen. “Ez”, erantzun nion. “Ea ba, zuri neska bat gustatzen zitzazun, baina ez zuen mutilagunik. Zein problema dago orduan hasiera batetik ezinezkoa zela esateko?”. Neska bat zela ondorioztatu zuen nonbait. Jarraitu zuen: “Ba hiruetako bat: edo haseria batetik ziur zeunden ez zintuela gustuko, edo bera lesbiana da, edo mutil bat da eta zu homosexuala zara”. Momentu horretan, erabat urduritzen hasia nintzen jada, laguna “nire sekretutxoa” asmatzeko zorian baitzegoen eta momentu horretaz beldur bainintzen. Hiruzpalu segundoko isilunea egon zen ondoren. Esan beharrekoa ondo neurtu behar nuen, oraindik bete-betean bainuen buruan Hectorri zuzenean esan nionean izazuen erreakzioa. “Horietako bat da, noski; baina zuk esandako esaldi hau ondo azter dezazun nahi dut, akats bat baitago: ‘Zuri neska bat gustatzen zitzazun, baina ez zuen mutilagunik’ esaldi horretan zeozer gaizki dago”, esan nion orduan. Momentu batez buruari eragin zion, eta, azkenik, lagunak bere ondoriozta-pena egin zuen: “Ikustagun, uste dut asmatu dudala: zu zara homosexuala, zeren eta neska balitz eta lesbiana, arazorik gabe kontatuko zenidakeen, eta ez da kasu hau”. Baiezko aurpegia jarri nion. “Mutil, ez duzu zertan kezkatu; ez dakit zergatik

jarri zaren hain urduri, zerbait normala da. Gainera, ahaztu ez baduzu, ea gay zinen galdetu nizun behin, eta galdera hori normaltasun osoz egin nizunez, ezin dut ulertu, ezta ere, zergatik ez zenuen nireganako konfidantza hori kontutan hartu lasaitasun osoz kontatzeko". Haren hitzek erabat lasaitu ninduten, eta lehen aldiz irabazi izanaren zapore pozgarria dastatu nuen. Gailendu zen azkenik justizia estereotipoen aurrean.

Ezin da esan hortik aurrerakoa niretzat erraza izan zenik. Izanere, nik neuk lagun guztiei banaka kontatuko niela erabakitzearekin batera, berriro ere hasierako kezka azaleratu baitzitzaizkidan burura. Dena den, oraingoan Sergioren laguntza morala nuen, eta horrek nolabait egoera hura leundu zuen. Adibidez, lehenengo neskegan konfiatzeko gomendatu zidan honek, hauek agian hobeto ulertuko zutela argudiatuz. Halatan, koardilako neskei kontatu nien lehenik, banan-banan, orain gogoratu ezin ditudan, baina erbat desberdinak izan ziren bideak erabili nituelarik eta betiere, nire zantzuei jarraiki, haiek asmatu behar zutelarik. Ondoren, mutilen txanda etorri zen. Hauekin zailgoa izango zen, gaiaren inguruko txantxak egiten baitziztuzten etengabe, baina, edozein modutan, banuen jada nolabaiteko praktika, eta, ondorioz, hauei kontatu eta nire aldeko lana burututzat jo nuen. Orain, lagunek erantzun behar zuten. Esan beharra dago guztien erreakzioa oso ona izan zela, eta hori albiste oso pozgarria izan zen niretzat. Gainera, aitorpenen ostean bakoitzarekin

izandako gaiari buruzko elkarrizketek asko lagundu zidaten.

Gaur egun, eta nahiz eta nire homosexualitatearen hirugarren etapa bizi gabe izan (nire norabidea mundu guztiari ezagutarazteari dagokiona, alegia), laugarrenaren bizipenak dastatzen ari naiz bete-betean, bikotea bilatzea ahalbieratu duen gertakari bat eman delako, hain zuzen ere. Izan ere, teknologia berrien ezarpenek (internet, kasu) zure etxetik munduko edozein tokiko jendearekin hitz egitea bermatzen dute. Honi esker, homosexualentzako chat batean Iñigo izeneko mutil bat ezagutu nuen iazko udaran. Momentu hartatik aurrera, eta hurrengo bi hilabeteetan, ia egunero aritzen ginen solasean gaueko ordu txikiak arte. Oviedokoa zela eta 15 urte zituela esan zidan, eta deskripzioz, “ilehoria, begi berdeak eta garaia” zen. Ez zuen itxura makala, ez; eragozpen bakarra nire herritik nahiko urrun bizi izatea zen, baina hori momentuz ez zen niretzat inolako oztopo.

Esan bezala, egunero elkartzen ginen chatean eta elkarrizketa luzeak izaten genituen maiz homosexualitatearen gaiaren, etorkizuneko planen edota eguneroko ekintzen inguruan. Hain zen atsegina harekin hitz egitea, hain ziren dibertigarriak haren txantxak, ezen denborarekin erabat maitemindurik gelditu bainintzen. Izan ere, harekin egun osoa barrezka igarotzen nuen, eta hori, bere tratuan azaltzen zuen zintzotasunarekin batera, izan ziren ni Iñigo erakarria sentitzearen arrazoiak. Horrela igaro ziren egunak eta asteak, azke-

nik elkar ikustea erabaki genuen arte. Lehenengo egunetik mutil harekin elkartzeko irrikitan nengoen eta Oviedora joateko aukera suertatu zitzaidanean, ez nion, ez, ukorik egin. Topaketa zoragarria izan zen: besarkaturik, elkarri begira geratu ginen, hainbat alditan planifikatu genuen bezala, eta, batasun bat osatuz, elkarri musu eman genion. Nire bizitzako momenturik gozoena izan zen hura, lehen aldiz benetako maitasunak transmititzen zizkidan sentsazioak dastatzen nituela. Horrela eman genuen egun osoa, biok elkaturik, batasun gaindiezin bat sortuz. Betea sentitzen nintzen, nire bizitzako helburuetako bat erdiestea lortu bainuen, eta munduko pertsonarik zoriontsuena eta, aldi berean, homosexuaa nitzela transmititu nahi nion jende guztiari.

Hala eta guztiz ere, oraindik aipatu ez dudana, baina nire buruan betiere mantendu den beste arazo bat gelditzen zitzaidan (eta zait) konpondu gabe, alegia, gurasoen kontua. Oso zaila da esplikatzen, jende asko nire pentsamoldearen aurka joango delako ziurrenik. Kontua da hasiera batetik ez nuela gurasoei nire homosexualtasuna agertzeko intentziorik, hasiera batean lagunekin gertatu zitzaidan bezala. Izan ere, nire ustez, ez zen nire errua gurasoek ni heterosexualtzat jotzea. Hortaz, ez niela kontatu behar ondorioztatzen nuen, ni bezalako mutil askok beren gurasoei neska batekin ateratzen ari direla kontatzen ez dieten moduan. Jakina, zuetako askok pentsatuko duzue hori ez dela justifikazioa, ea noizbait norbaitek mutil bate-

kin ikusi nautela kontatzen badie, haientzat oso gogorra izango dela argudiatuko duzue. Baina nire galdera da: zergatik jarraitu behar du izaten egoera hori gogora gurasoentzako, horrek ez badu, inolaz ere, gure jokabidean eragiten? Ez al gaude bada homosexualak normalizazio bide batean? Noiz arte jarraitu behar dugu mespretxuzko jarrera honen aurrean borrokatzen? Dena den, eta nahiz eta nik hala pentsatu, lagunekin horrelako eztabaidak izan ondoren, nire jarrera aldatzea erabaki dut eta gurasoei kontatzea planteatzen ari naiz, baina ez aburuz aldatu dudalako, injustiziaren aurkako borrokan eta normalizazio prozesu horretan pausoz pauso joan behar naizelako baizik; agian arrazoi duzu: gurasoei ezin diet eskatu halako erreakzio positiborik, oraindik “homosexuala” hitza aipatzea arrotza egiten zaion gizarte honetan. Edozein modutan, ene guraso eta irakurleok, gay nauzue.

*Oharra:* isotorio hau gertakari errealetan oinarrituta dago, nahiz eta asmatutako egoerak txertatu eta ekintza batzuk eta pertsonaien izenak aldatu ditudan; norbaitek errealitatean bizi izandakoaren antzik duen zerbait antzemango balu, litekeena da kasualitate hutsa ez izatea.